

2025-06-06 / 860 ZENBAKIA / 21. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Gogoan hartzeko Gazte Festak, Urnietan

Gozatu ederra hartu zuten Urnietako jaietan murgildutako festazaleek, aurreko asteburuan. Ostegunean hasi eta igandera bitarte, hamaika hitzordu izan dira / 6-9



**Euskal Herriko  
eta nazioarteko  
partaidetza, aurtengo  
Laba Gravel  
lasterketan** / 10



**Andoainen eta  
Urnietan geldialdiak  
egingo ditu  
Albaola-Aralar arteko  
erromesaldiak** / 15



## Rockzaleen hitzordua

Egun osoan musika-emanaldiak izango dira Andoainen, larunbatean / 16



# FINALAURREA

etb1

EKAINAK 9, ASTELEHENA. 18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA: ANSA II · AZPIROZ VS URRIZA · LARRAÑAGA

ERREMONTARIKO FINALAURREA

EZKURRA II · JUANENEA VS ALDABE · BARRENETXEA IV





# Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



**AIURRI.EUS**  
**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Lehiaketan parte hartu zuten adiskideak: Emilio Vigo, Juanan Lopez, Javi Garcia, Maria Lucas, Cristina Gibello, Sonia Canales eta Iñaki Torres.. SUSANA GARCIA

Kultur-asteko patata-tortilla onena, Cristina Gibellorena

Hogar Extremeño elkartean ekitaldi ugari antolatu dituzte, igandera bitarte

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Tradizio handikoa da Hogar Extremeñoko patata-tortilla lehiaketa. Cristina Gibello izan da aurtengo irabazlea eta gertu izan zuen Emilio Vigo. Haiekin batera beste hainbat bazkidek ere parte hartu zuen.

Aurreko larunbatean hasiera eman zioten XLVI. kultur-astea-ri. Ordezkaritza duten alderdiei harrera ofiziala egin zieten. Daniel Alaminos elkarteko lehen-dakariak egin zuen harrerako hitzaldia. Ondoren, hamaiketa-koa egin zuten.



Parte hartzeko gunea. UDALA

Urnietako partaidetza-prozesuaren datuak eman ditu Udalak

Herritarren esku dago Urnietako Udal aurrekontuaren 150.000 euro zertara bideratuko diren erabakitzea.

Maiatzean hamasei urtetik gorako urnietarrek iradokizunak egiteko aukera izan dute eta, orotara, Udalak emandako datuen arabera, 218 galdetegi jaso dira epealdi horretan. Erdia, gutxi-asko, telematikoki jaso da.



"Topa! Gasteiz" sagardo-dastaketan parte hartuko du Altunak. AIURRI

Altunak arabarren aurrean aurkeztuko du sagardoa

Beste hamar sagardogilerekin batera "Topa! Gasteiz" ekitaldian parte hartuko du Urnietako ekoizleak

**Erredakzioa** URNIETA  
"Topa! Gasteiz" ekitaldiaren barruan Sagardo Eguna egingo da ekainaren 7an, larunbata, Aihotz plazan. Egun osoan, Gipuzkoako eta Arabako 11 sagardotegiren sagardoa izango da, beraiek zerbitzatua, eta dastatze-gidatuak egingo dira Mikel Garaizabalen eskutik. Tartean izango dira Altuna sagardotegiko kideak. Euskal Sagardoaren komertzializazio-bidea indartzen ari da. Oraingoan, Arabako ostalari-ek sektorea eta produktua ezagutu dituzte.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

**Maketatzaillea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzailleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

**Diseinua:** Goiena / TOKIKOM.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Otxandioko dantzariak, dantzan hasi aurretik. Talde bizkaitarraren eta beste hainbaten bideoak, ikusgai daude web orrian. AIURRI



Urkiko dantzariek Makil Dantza egin zuten, besteak beste. AIURRI

# Andoaingo Euskal Jaialdia

Euskal Herriko herri askotako dantzariak, txistulariak, akordeolariak, txalapartariak, gaitariak, bertsolariak eta trikitilariak bildu zituen 35. Andoaingo Euskal Jaialdiak, igandean, Urki Dantza Taldeak antolatuta

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Hain zuzen ere, honako talde hauek ospatu zuten festa goiz eta arratsalde: Azkain, Oiartzun eta Otxandioko dantza-taldeak, Hernaniko txalapartariak, Lizarra eta Debako gaiteroak, eta, Gasteizko txistulari eta akordeoilariak. Gonbidatu berezi horiekin batera, Olagain Udal Txistulari Elkartea, Udal Musika Eskolako akordeoilariak eta, jakina, Urkiko dantzariak aritu ziren.

Goikoplazan zegoen iragarritako bilkura nagusia goizetik, baina eguraldi kaskarra zela medio, 15 urte bitarteko neska-

mutikoen, Ondarreta Herri Eskolako aterpean egin behar izan zituzten beren emankizunak.

35. edizio honetako kartela sortu duen Naroa Asensiori oroigarria emateko probestu zuten goizeko jaialdia.

Saio hori amaiturik, Urki taldeko familiekin kanpotik heldutako zenbait neska-mutil beren etxetara bazkaltzera gonbidatu zituzten. Beste batzuei Aita Larramendi Ikastolako eta La Salle Berrozpeko jangeletan edota Andoaingarra elkartean eskaini zitzaizkien merezitako bazkaria. Arratsaldean, berriz, Zumea plazako karpan, euskal festa giroari jarraipena eman zioten erromeria-dantzaldiarekin, Jeiki Hadi taldearen eskutik.

**Gazteen abilezia**

Batik bat, Ondarretan goizez ospatutako jaialdian nabar-

mentzekoa da 15 urte bitarteko neska-mutilek erakutsi zuten prestakuntza, abilezia eta gogoia musika-instrumentuak jotzeko (txistua, gaita, txalaparta, akordeoia...) zein euskal dantzak interpretatzeko. Halaber, beste behin geratu zen agerian euskal dantzetan azken urteetan gertatzen ari den joera: emakumeak direla nagusi, alegia. Horrela, iraganean mutilentzat "erreserbatuta" zeuden dantza ugari, emakumeek plazaratu zituzten Ondarretan, modurik naturalenean ere dantzatu.

**AGERIAN GERATU ZEN EMAKUMEAK NAGUSI DIRELA EUSKAL DANTZETAN, EGUN**



Leire Iturralde irakaslea, Sardinera dantzatu zuen seikote gaztearekin. AIURRI



Fernando Gonzalez, Mattin Zalakain eta Enaitz Vazquez txistulariak. AIURRI

**MUSIKA ETA DANTZA ERAKUSTALDI EDERRAK EGIN ZITUZTEN DENEK ERE**



Azkainekeo dantzariak eta txistulariak. AIURRI



Oiartzungo Haurtzaro ikastolako dantza taldea. AIURRI



Gasteizko txistulari eta akordeoilariak, Susana Cencilloren zuzendaritzapean. AIURRI



Deba eta Lizarrako gaitariak. AIURRI



Hernaniko txalapartariak. AIURRI



Ane Urbizu irakaslea gidari duten Udal Musika Eskolako trikitilariak. AIURRI



Leire Iturralde irakaslea, dotore aritu ziren Urkiko dantzari txikienekin. AIURRI



Gaztelekuko nerabeak, pregoia bota aurretik. AIURRI

# Gozatu ederra, Gazte Festetan

Eguraldiaren etengabeko aldaketa gorabeheratsuak ez dira oztopo izan urnietarrentzat Gazte Festez gozazeko. Ostegunetik igandera, kalera ateratzeko makina bat aitzakia eman dituzte herriko eragileek zein Urnietako Udalak antolaturiko hitzorduek

## Erredakzioa URNIETA

Iritsi bezala, alde egin dute aurtengo Gazte Festek, ez edozein modutan, ordea: lau eguneko ospakizun-sorta luzea izan dute pasa berri den asteburuan Urnietan. Ostegunetik hasita eta igandera bitarte, adin eta gustu guztiei begirako egitaraua osatu zuten herriko askotariko eragileek, Urnietako Udalarekin elkarlanean.

Gozotik ekin zioten jaiari osteguneko parrandazaleek, Poxta Zaharrek antolaturiko tabernen pintxo-lehiaketan.

Ostiralean, berriz, Gaztelekuko nerabeen txanda izan zen, haien eskutik iritsi baitzen festa herrira, txupinazoarekin. Txarangak, afariak, herriko taldeen kontzertuak... Hasiera ezin hobea eman zioten asteburuari Urnietan.

Dantzak hartu zituen herriko kaleak, larunbat goizean, Egape Dantza Taldeak orain urte luzetatik antolatzen duen "Urnietan Dantzan" ekitaldiarekin. Plazaz plaza aritu ostean, emanaldi nagusia egin zuten eguerdian Plazido Muxika plazan.


Trikipoteorako aitzakia hartu zuten orduan herriko gazteek, Poxta Zaharrek antolaturiko herri bazkarira joan aurretik. Mahoizko arropak soinean, gaueko ordu txikiak arte luzatu zuten ospakizuna urnietarrek, txarangen eta musika-taldeen zein DJen laguntzarekin.

Igandean, berriz, haurrei zuzenduriko tailerrez gain, Kontzejupeko finalak jokatu ziren, baita Txanbolin txistulari bandaren emanaldia ospatu ere. Iluntzean, DJ Kaktusek itxi zuen festa, Egape Ikastolako frontoian.

## Pintxo-lehiaketa, ostegun iluntzean



Frontoi taberna.



Kandela taberna.



Iparralde taberna.



Kantoi taberna.

Gazte Festak ofizialki ostiralean hasi arren, bezperan, ostegun iluntzean, hain justu ere, ekin zioten herriko gazteek ospakizunari, Poxta Zaharrek antolaturiko tabernen arteko pintxo-lehiaketarekin.

Iluntzeko 19:00tan bildu ziren Matxo tabernan denak, kalez kale musikaren laguntzarekin aritzeko asmoz.

Joan den urteko irabazle berberak, Kantoi tabernak egin zuten herritarrentzat pintxorik gustukoena, risottoa.



Ez du sekula hutsik egiten Egape Dantza Taldeak, festen hasierako txupinazoan. Taldeko familia-argazkia, Edu Muruamendiaraz irakaslearekin batera. AIURRI



Dozena bat nerabek irakurri zuten pregoia, jaien hasierako suziriak bota aurretik. AIURRI



Eguraldiak baldintzatu arren, ospakizun-giroa izan zen nagusi Etxeberri plazan, bertako auzokideen eskutik. AIURRI

### Pregoia, Gaztelekuaren eskutik



Azken urteotako pregoirik onena izan da. AIURRI

"Arratsalde on Urnietako guztioi. Gaztelekuko neska eta mutilak gara eta aldeztu aurretik hemen goian egoteko eman diguzuen aukera eskertu nahi dizuegu. Oso pozik eta ilusioz beterik gaude gaur, Urte osoa daramagu zain.. Eta azkenean... hemen da! Ikastetxeko lanak, eguneroko ardurak, eguraldi aldrebesa... Baina orain bai, gure festak hastera doaz eta horrekin batera jolasak, musika, lagunak eta herriko giroa ere bai! Hala ere, gogoratu behar dizuegu festak ez direla soilik parranda egitea. Festak dira elkarrekin egotea. Barre egitea. Gure herria maitatzea eta zaintzea. Eta bai, baita elkar errespetatzea ere.

Hemen gaude ahotsa altxatzeko, eta zuei esateko: festa guztiontzat da, eta denok ongi pasa nahi dugu! Horregatik, eskatzen dizuegu: lagunartean ondo ibiltzeko, besteei ondo pasatzen laguntzeko, eta herria garbi, alai eta bizirik mantentzeko! Gainera. Urnietan gazteok ere badugu tokia, gure ahotsa, eta gure indarra eta hori mantentzeko ezinbestekoa da herri guztiaren parte-hartzea egotea herri bateratu bat garelako! Horregatik, hemen gaude gaur: Gaztelekuko gazteok prest gaude! Gora Gazte Festak! Gora gure lagunak, gure familia eta gure herria!

Eta ozen esango dugu: GORA URNIETA! Eskerrik asko guztioi, eta... Ongi pasa festak! Errespetuz, pozez eta bihotz betez!"



"Eguzkilo" dantzak ireki zuen emanaldi nagusia, Sandonisen omenez. AIURRI

## Maria Sandonisi gorazarre, "Urnieta Dantzan" jaialdian

Urtero bezala, dantzak hartu zituen herriko kaleak larunbat goizean, Egape Dantza Taldearen eskutik

### Erredakzioa URNIETA

"Eguzkilo" piezak ireki zuen eguerdiko ekitaldi nagusia, joan den urtean zendu zen Maria Sandonis Lasheras elkartekidearen omenez. Dantzari ekin aurretik, bertsoa abestu zuen Naroa Agirre herrikideak: *Urtetan sustatu zenun Egape Dantza Taldea eta Urnietan Dantzani ekin genion bidea*

*lan eta lan ibiltzen zinen galdu gabe umorea jangelan edo txosnetan trajeei jartzen kolorea. Alaia, eskuzabala ta lagun paregabea bixigu-afarietan egin genuen sarea Maria joan bazara ere hemen da zure ondarea zauden tokian zaudela hor doa eguzki-lorea.*



Erakustaldi ederra egin zuen EDTK larunbatean. AIURRI



## Uda giroko afari tropilaka

Giro epelean hartu zuten herriko gazteek ostiral iluntzea, Poxta Zaharrek antolaturiko afari tematikoarekin: tenperatura tropikaletara egin zuten jauzi urnietarrek, Hawaii aldeko jantziekin, baita turista plantako lorehun alkandorekin ere.

Afaria Jakutegi plazan izatea zegoen aurreikusita, baina tokiz aldatu behar izan zuten hitzordua eguraldiaren iragarpen kaskarra dela eta. Hala, Plazido Muxikan bildu ziren elkarrekin afaltzeko, San Juan plazara, gaueko eskaintzaz gozatzen aurretik.



San Juan plazan egin zuten bilkura herriko gazteek, Poxta Zaharren eskutik. AIURRI



## Mahoizko jantziak soinean, herri bazkarira

Baserritar Eguna izan zen herrian larunbatean. Hori horrela, urtero bezala, alkandora txuriak eta mahoizko jantziak atera zituzten armairutik urnietarrek. Poxta Zaharrek antolaturiko trikipoteoak eman zion hasiera egunari, San Juan plazan egindako bazkarira ailegatu

aurretik. Behin tripak bapo betetea, jolaserako tartea hartu zuten, baita dantzatzeko ere, 18:00etan hasitako Lau Katu txarangak gidatuta. Gauean ere zer gozatua izan zen erromeriarekin, Herenegunekin eta DJ Giorekin.

## Kontzejupekoen finalak



Denboraldi amaiera aldera iritsita, Kontzejupeko pilota-txapelketa antolatzen du Urnieta Kirol Elkarteko pilota sailak, urtero, bere harrobiko jokalarientzat: jaien bezperako asteetan hasita, partidak izan dira Kontzejupean. Hala, Gazte Festen igandean jokatu zen finala, eguerdian, adinaren arabera hiru kategoritan banatuta.

### Finalak

Aurrebenjaminetan:

18-12 Inar Larrea-Irai Mitxelena.

Benjaminetan:

12-22 Xabat Larrea-Beniat Mitxelena.

Alebinetan:

22-18 Iker Belaunzaran-Urko Perez.

Amaitzear da klubaren denboraldia, baina, jada datorrenari begira daude: ate irekiak izango dira, ekainaren 11n, 16an eta 18an, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Udal Pilotalekuan.

## Txanbolinen emanaldia

Eguraldia dela eta, Sarobe Arte Eszenikoen Gunean egin zuen Txanbolin txistulari bandak bere festetako emanaldi berezia. Txistuak eta danbolinak protagonismo berezia hartu arren, herriko beste kultugile batzuei ere egin zien lekua ikuskizunak. Besteak beste, oholtzara hurreratu ziren Kantazauneko lagunak, baita Egape Dantza Taldeko kideak ere.



AIURRI



AIURRI



Txirrindulari taldea, Aginatik igaro zirenean. AIURRI

## Bere txikian, handia da Laba Gravel lasterketa

**GRAVEL** Edizio berria iragan berri da. Andoain eta inguruko bailaratan hiru ibilbide egokitu dituzte 110, 170 eta 270 km-koak. Erakagarria da Laba Gravel, bikainki antolatuta. Antolatzaileak zuhurak dira, proba beren indarraren arabera dimentsionatu baitute

### Xabier Lasa ANDOAIN

Bastero Kulturgunean elkartu zituzten partaideak, bezperan, dortsalen banaketa-ekitaldian. Igor Otaegi eta Nekane Goikoe-txea izan ziren lasterketaren xehetasunak eman zituztenak. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eman zituzten xehetasunak, partaidetza nazioartekoa baitzen. “Pozik gaude, Labak txirrindularien artean izan duen harre-ragatik, aurtun ere 150 lagun aterako zarete ordutegi ezberdinetan, 110, 170 eta 270 km-ko ibilbideak egitera. Dena prest daukagu eta espero dugu entrenamenduak, gozamina eta aha-legina zuek jartzea bihar goizetik aurrera. Labako beterranoek badakizue, baina Labaren atzean lagun kuadrilla bat dago: txirrindularitzak batu gaituen talde heterogeneoa. Bi hitz gure motibazioen gainean: gure asmoa kirolaren bitartez Andoain eta inguruak ezagutzera ematea da. Taldean txirrindulari eta txirrinduzale ugari daude eta beti

kanpoko probetan ibili partez, auzolanean antolatuta, kanpotarrak etxera ekarri nahi izan ditugu, paraje eder hauez gozatzeko. Dibertsioa dagoen bitartean eutsiko diogu antolaketa-ri”. Andoni Alvarez alkateak harre-ra-ekitaldian parte hartu zuen eta boluntariotza-lana azpimarratu zuen. Aurtun baliabide gehiago jarri ditu Udalak, “antolatzaileek egiten duten lanaren pareko ahaleginera” iritsi asmoz.

Probaren xehetasunak azaldu zizkieten Basteron bertan eta segidan partaidetza-datuak eman zituzten: “Ikusten duzue, lan handia dago biharko egunaren aurretik. Baina guztiak merezi du partaideon erantzuna ikusita. 80 lagunek ezin izan dute proban irten, itxaron-zerrendan direlako, baina gure erabakia Laba egungo dimentsioetan mantentzea da. Hasieran esan bezala, guretzat garrantzitsua da harrera ona egitea eta guztiok, kirolari eta antolatzaileok, egun ona pasatzea elkarrekin”.

### Irteera goizeko 04:30ean, Arruti gozotegian gosalduta eta gero

Larunbatean goizeko 04:30ean abiatu ziren ibilbide luzeko partaideak, Arruti gozotegiak gosaltzeko ateak ireki baitzituen. Zumea plazatik abiatu ziren baina lasterketari hasiera Otietan eman zioten. Partaidetza adina abentura izan zen antolatzaileek egindako hiru ibilbideetan. Denak aipatzea ezinezkoa da. Askoren artean, hiru: bat, aurtengo edizioako ibilbide luzean iritsi zen lehen lasterkaria Mikel Iturria urnietarra izan zen. Txirrindularitza profesionala alde batera utzi ondoren, Gravako hainbat lasterketatan parte hartzen ari da; bi, Errioxako bi partaideren iritsiera aipagarria: Errioxatik Andoaineraino bizikleta gainean iritsi ziren, ostiralean. Larunbatean ekin zioten probari; hiru, aipamen berezia Iñaki Sorozabal txirrindulariari, edizio guztietan parte hartu duen lasterkari bakarra baita.

## Andoain eta inguruko bailaratan



Mikel Iturria, Aritxulegin. AIURRI

**Mikel Iturria nagusitu zen** Mikel Iturria urnietarra izan zen aurtengo edizioako ibilbide luzean iritsi zen lehen lasterkaria. Txirrindularitza profesionala alde batera utzi ondoren, Gravako hainbat lasterketetan parte hartzen ari da.



Bi partaide, Berueten, iturrian frexkatu ostean. AIURRI

**Partaidetza, lurraldearen arabera** Euskal Herriko eta nazioarteko partaideak hurbildu ziren Andoainera. Honatx datuak: Euskal Herria, 116; Gipuzkoa, 81; Frantzia, 11; Gaztela Leon, 8; Madrid, 6; Errioxa, 5; Katalunia, 2; Aragoi 1, Britainia Handia 1.



Sorozabal, erdian, lasterketa amaitu zuten bi kiderekin batera. IGOR OTAEGI

**Edizio guztietan aritu den partaidea** Aipamen berezia zor zaio Andoingo Laba Gravelen edizio guztietan parte hartu duen lasterkariari, bakarra baita. Iñaki Sorozabal txirrindularia da eta argazkian erdian ageri da.



Finlandiako jokalariek. CTK / IMAGO SPORTFOTODIENST / MARKKU ULANDER

# Finlandia eta Euskadi, aurrez aurre, Allurralden

**ESKUBALOIA** Urteko sasoi honetan, Euskadiko eskubaloi federakuntzak Basque Country International Cup izeneko txapelketa antolatu ohi du. Aurtengoan Finlandiako selekzioa izango da gonbidatua. Andoainen jokatu dute, igande arratsaldean

**Erredakzioa** ANDOAIN

Euskal Selekzioaren eta Finlandiako selekzioaren artean bi partida jokatu dira asteburu honetan, horietako bat Andoaingo Allurralde kiroldegian. Bi partidak Basque Country International Cup delakoaren barruan jokatu dira. Federazioak, ohar bidez adierazitakoaren arabera, norgehiagoka bikoitzaren bidez "gure jokalarien talentua frogatzear gain, kirolaren bidez nazioarteko zubiak eraikitzen jarraitzeko aukera ere emango digu. Aukera paregabea izango da Euskal Selekzioa hazten ari den nazioarteko selekzio baten aurrean lehiatzen ikusteko".

Federazioak eskerrona adierazi die Zarautz Eskubaloia eta Leizaran Eskubaloia, haien "lankidetzari eta inplikazioari esker" egingo baita txapelketa. Eskerroneko zerrenda zabalagoa da: Zarautz eta Andoaingo udalen konpromiso eta lankidetzaz gain, Eusko Jaurlaritzaren, Basque Teamen, EKFBren eta Fe-



2023an ere elkarren aurka aritu ziren Euskal Herrian. EUSKAL SELEKZIOA

derazioaren enpresa laguntzaileen babesari esker (Allianz, Adartia Grupo Alkora eta Hummel) egin ahal izango da". Sarrera libre izango da, aretoa bete arte. Federakuntzak gonbitea luzatu du: "Euskadiko eskubaloia zaletuak gonbidatu nahi ditugu gure selekzioa

nazioarteko erronka berri honetan animatzera".

**Partiden egutegia:**  
Euskadi-Finlandia  
Ekainak 7, larunbata:  
13:00, Aritzbatalde kiroldegia.  
Ekainak 8, igandea.  
16:30, Allurralde kiroldegia



AIURRI

## Ate irekiak, Ubitarten

**FUTBOLA** Adin guztietara eta maila guztietara zabaldu nahi du Euskalduna futbol taldeak bere jarduna. Neskei zuzendutako deialdiak dira guztiak. Benjaminak: Ekainak 11 (17:00). Alebinak: Ekainak 9 (17:00). Infantilak: Ekainak 11 (15:30). Kadeteak: Ekainak 11 (17:00). Preferente neskak, 2008tik aurrerakoak: Ekainak 10 (18:30).



AIURRI

## Ate irekiak, Allurralden

**SASKIBALOIA** Ganbara saskibaloitaldeak Andoaingo eta inguruko infantil eta kadete mailako neska-mutilei saskibaloian trebatzeko aukera emango die, aste honetan hasita. Ate irekiak arratsaldeko 18:30ean izango dira Allurralde kiroldegian. Egunak honako hauek dira: ekainak 6an, 11 eta 13.

andoaINDARRA  
euskaraz



Infantil mailako Leizaran McDonalds taldea. LEIZARAN

## Bost finaletatik hiru irabazi ditu Leizaran eskubaloit-taldeak

**ESKUBALOIA** Kopako bost finaletan murgilduta daude Leizarango taldeak

### Erredakzioa ANDOAIN

Ez dira asko izango azken jardunaldira bost finalistekin iritsi diren taldeak. Aurreko asteburua zirrargarria izan zen Leizaran Eskubaloit Klubarentzat.

### Emaitzak:

**38-34** Leizaran SenM-Donibane  
**31-33** Aloña Mendi-Leizaran KadM  
**30-37** Boga Boga-Leizaran InfN  
**29-28** Ordizia-Leizaran InfN  
**29-34** Leizaran InfM-Pulpo

## Urnietarrak, txapelkun-orde

**ESKUBALOIA** Ahalegin handia egin arren, Iñaki Mecanizados taldeak ezin izan zuen irabazlearen kopa altza

### Erredakzioa URNIETA

Aparteko giroa izan zen kiroldegian, joan den igandean. Kadete mailan, Urnieta Iñaki Mecanizados taldeak ezin izan zion denboraldiari amaiera biribila eman, 21-27 galdu baitzuen Elgoibarren aurka. Ahalegin handia egin arren, etxekoek ezin izan zioten neurria hartu norgehiagokari. Atzera begira jarrita, harro egon daitezke, "urtez urteko aurrerapen eta konpromiso nabarmena ikusita". Partida horrekin amaiera eman dio UKEk denboraldiari. Ekainaren 14an, denboraldi amaierako afa-ria ospatuko dute.



Kadete mailako nesken Paula Sanchez, irudian. AIURRI



Finala, Errenteriaren aurka, Ordizian, larunbatean, 18:15ean hasiko da. AIURRI

# Herriarteko pala finala jokatuko dute

**HERRIARTEKOA** Arrate pilotalekuan, aurreko asteburuan, Andoainek palako herriartekoa jokatzeke finala lortu zuen, Donostia gailendu eta gero. Gomazko paletan, berriz, final-laurdenetako joaneko partida jokatu zuten eta horretan ere Andoain izan zen garaile

### Erredakzioa ANDOAIN

Palan bi aldaeratan jokatzen da: larruzko paleta eta pala motza. Aurreko asteburuan Andoain-Donostia finalaurrekoa jokatu zen eta bi partidatan Andoain izan zen garaile. Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan Errenteria izango dute aurkari. Emaitzei begira, larruzko paletan, Ibai Iradi-Iñaki Lopez de Munain bikotea 35-14 gailendu ziren, eta pala motzean, Ibon Altuna-Koldo Ponce bikotea 40-17 irabazle izan ziren.

### Gomazko paletan, hiru garaipen

Gomazko paletan, final-laurdenetako joaneko partidak Arraten jokatu ziren. Modalitate honetan hiru partida jokatzen dira eta hiruretan Andoain izan zen garaile. Donostian, datorren asteburuan, itzuliko partidak jokatuko dira. Gauzak ondo, Andoain herriak finalaurrekoa jokatzeke sailkapena eskuratuko du. Joanekoan, honako hauek izan ziren emaitzak: banaka, frontoi osoan,



Gomazko paletakoak final-laurdenak jokatzen ari dira. AIURRI

Josu Etxeberriak 20-15 irabazi zuen; binaka, frontoi osoan, Xabier Alkorta-Mikel Arberas 20-5

garaile izan ziren; eta, zazpi barruan, Julen Loidik 20-2 gaititu zuen aurkaria.

# Lasterketak adina sari

**TXIRRINDULARITZA** Maila itzela erakusten ari dira, junior mailan, Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak. lazkoaren bidetik, lasterketa gehienetan gailentzen ari dira. Maiatzean, esaterako, Gipuzkoako Itzulian nagusitu dira eta hilabetea biribiltzeko Euskadiko txapelketa lortu dute. Aurreko asteburuan, Sopelan, errepideko Euskadiko txapelketa jokoan izan zen. Kadete mailan, Maddi Ormazabal 37. postuan sailkatu zen. Junior mailan, Irati Aranguren txapelduna eta Izaro Etxarri, aldiz, hirugaren postuan helmugaratu zen. Halako emaitza bikaineekin ez da erraza izango Andoaingoan aurkari edo lehiakide izatea. Asezinak baitira. Zorionak!



ANDOAINGO

# Ereñotzun, garaile

**LASTEKETAK** Aurreko asteburuan Ereñotzuko Mendi Lasterketa izan zen eta emakumezkoetan Ainhoa Arruti Loiarne urnietarra nagusitu zen (1:26:50). Gizonezkoetan berdinketa izan zen Jokin Tolosa eta Ander Amonarrizen artean, eskutik helduta iritsi baitziren helmugara (1:05:30). Lehen urnietarra Mikel Elorza izan zen (1:18:55).



KRONIKA

# Gipuzkoako Open Saria

**IGERIKETA** Gipuzkoako Open Saria ospatu zen Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, aurreko asteburuan, eta bertan izan ziren Buruntzaldea IKT taldeko Iker Gorostegi, Miren Sarobe, Mayi Gorostegi, Oihan Matute, Mario Amantegi, Ibon Elola eta Kimetz de la Cruz. Proba gogorra izan zen eta, bereziki, Oihan Matute andoaindarra eta Ibon Elola nabarmendu ziren: Matutek 100 eta 200 bular eta lau estiloetako 20 metroko probatan bere marka onenak ezarri zituen. Klubak helburu berria du aurretik: "Laster, Lasarte-Oria Saria ospatuko da. Ilusioz gainezka joango gara gure etxeko sarira, talde osoa igerilekuan biltzeko ematen duen indarrarekin lehiazera".



BURUNTZALDEA IKT



Gabirondo, lanean. ZALDUA FOTOGRAFOS / ERRAN

# Gabirondok bota zuen apustua, Etxeberria izan zen garaile

**HERRI-KIROLAK** Zigako aizkolariak lau minutuko aldea atera zion Gabirondori, 60 ontzako hamasei enbor moztuta

**Erran.eus TOKIKOM** DONEZTEBE Julen Gabirondok botatako erronkari bikain erantzun zion Zigako Joxean Etxeberriak eta larunbatean Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan jokaturako apustua nagusitasunez irabazi zuen. 60 ontzako hamasei enborrak mozteko ordubete, hama-bortz minutu eta sei segundo behar izan zituen Etxeberria II.ak eta lau bat minutu gehiago Urnietakoak. Gisa horretara, jokoan zeuden 8.000 euroak eskuratu ditu Zigako aizkolariak.

**Etxeberria, kontent** Joxean Etxeberria kontent zegoen apustuko emaitzarekin, "arras gogorra izan da eta gaizki pasatu dut, baina aitzinera segitu dut, sufrituz, eta azkenean abantailarekin akitu dut", adierazi zuen.

**Gabirondorentzat, bero handia** Gabirondo aitzinetik hasi zen, baina "seigarren enborrean bete naiz, beroarekin eta behera egin dut, buelta ematea asko kosta zait".



Etxeberria, lanak amaituta, ospakizun betean. ZALDUA FOTOGRAFOS / ERRAN

# HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ERAKUSKETAK

### ANDOAIN Axeri-Dantza

Erakusketa zabalik dago hilabete amaiera bitarte.

*Azken eguna: Ekainak 27.  
Bastero Kulturgunea.*

### URNIETA Marrazketa eta pintura

Marrazketa eta pintura ikastaroko ikasleen erakusketa ikusgai dago Lekaioko sarreran.

*Azken eguna: Ekainak 9. Lekaio.*

## MUSIKA

### ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdian hasita, hainbat tokitan, Rukula, Gori Gori eta Marte Lasarte. Arratsaldean, Nafarroa plazan, jaialdi nagusia: Ezezez, Nafarroatik; Dummy, Kaliforniatik; Holiday Ghosts, Londonetik; The Black Wizards, Portugal aldetik; Amor Liquido, Madriletik; eta, A place to bury Strangers, New Yorketik.

*Ekainak 7, larunbata.*

### URNIETA Musika Eskola

Ikasturte amaiera Lourdes Iriondo musika-eskola.

Piano entzunaldia:

*Ekainak 5, osteguna.*

*18:30, Sarobe.*

“Iruzta eta lagunak”:

*Ekainak 6, ostirala.*

*18:30, Sarobe.*

## DANTZA

### ANDOAIN Amama

Amama batek ipuinak kontatzen dizkio bilobari. Euskal dantzetan oinarritutako koreografi bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin.

*Ekainak 8, igandea.*

*12:00. Bastero Kulturgunea.*

### ANDOAIN Axeri-Dantza, bazkaria

Axeriek, axeri zaleekin eta herritarrekin partekatu nahi dute dantza osteko bazkaria. 14:30ean hasiko da otordua, La Salle ikastetxeko jolastoki estalian.

*Txartelak salgai, Lanbroan eta Gaztelutxon.*



Kultur Astea abiatu da. AIURRI

### ANDOAIN Hogar Extremeño elkartearen Kultur Astea

Gonbita luzatu die elkarteko zuzendaritzak andoaindarrei: “Gonbidatu eta animatu nahi ditugu herritar guztiak proposatzen diren ekitaldi eta jardueretan parte hartzera”.

Aste osoan, gainera, Zuenako kideen erakusketa ikusgai. Egitaraua:

#### Ekainak 5, osteguna

**19:00** Artisau garagardo eta gazta dastaketa.

#### Ekainak 6, ostirala

**19:00** Txalaparta eta dantza saioak.

Parte-hartzaileak:  
Intxaurrendoko Centro  
Extremeño, Lasarte-Oriako  
Semblante Andaluz,  
Urnietako Egape DT eta  
Maizorri Txalaparta taldea.

#### Ekainak 7, larunbata

**10:00** Miga-lehiaketa.

**11:00** Toka-lehiaketa.

**12:00** Sari-banaketa ekitaldia.

### ANDOAIN Axeri-Dantza, entseguak

Axeri-Dantzari izateko gogoz dabilzan herritarri aurtengo entsegu egunak zehaztu dituzte.

Entseguak ekainaren 10, 12, 16 eta 18an izango da. Emanaldia, ohi bezala, San Juan egunean da.

*19:00, Ondarreta Herri Eskola.*

## DANBORRADA

### ANDOAIN Agustin Leiza elkarte


San Juan jaiei begira, entsegu ekin diete. Entseguak ekainaren 5ean, 9an, 11n eta 17an dira.

*19:00, Ondarreta Herri Eskola.*



Urnietako  
udala

## ZINEMA



### ANDOAIN

#### BASTERO

##### Sorda

Ekainak 8,  
igandea. 19:30.  
Ekainak 9, astl.  
17:00, 19:30.  
**Kayara Inka**  
gerraria

Ekainak 8,  
igandea. 17:00.

##### Baltimore

Ekainak 14,  
larunbata. 19:30.  
Ekainak 15,  
igandea. 19:30.  
Ekainak 16, astl.  
17:00, 19:30.



## SINOPSISIA

### Sorda

**Zuzendaria:** Eva Libertad. **Aktoreak:** Miriam Garlo, Alvaro Cervantes, Elena Irureta, Joaquin Notario...

**Herrialdea:** Espainia.

**Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz **Generoa:** Akzioa.

**Iraupena:** 99 m.



## Film laburra zena luze bilakatu dute

Angela emakume gorra haur bat izango du Hectorrekin. Haurdunaldiak bere beldurak azaleratzen ditu amatasunaren aurrean eta bere alabarekin komunikatzeko moduari buruz. Neskaren etorrerak krisia sortzen du bikotean, eta Angela alabaren hazkuntzari aurre egitera eramaten du, berarentzat egina ez dagoen mundu batean. Izen bereko 2021eko film laburrean oinarritutako film luzea. Aktoreen artean Elena Irureta ageri da.

## Kayara inka gerraria



Euskarazko zinema, igande honetan, Bastero Kulturgunean. Adi, zeren eta haurrentzat emanaldi bakarra dago aurrikusita. Kayara Inken neska gaztea Chasqui izeneko mezularien lanaren zale amorratua da. Zergatik ditu gogoko? Inken Inperio zabalean barrena mezuak eramateaz arduratzen direlako. Gizon-talde esklusibo horrekin bat egitea amesten du eta, ibilian-ibilian, abentura ugaritan murgilduko da.



HARITIK

## Iruzta eta lagunak, Saroben

Iruzta taldea urnietarrez eta hernaniarrez osaturik dago eta Lourdes Iriondo Musika Eskolak antolatu duen emanaldi-sortari amaiera emango dio, ostiral arratsaldean. Partaideak Jone Izagirre Goenaga, Enara Donavera Garcia eta Malen Barrenetxea Solano. Emanaldi honetan lagunez inguratuta igoko dira oholtzara, euskal kantu ezagun ugari eskaintzeko.



ENEKO URDANGARIN

## Kontzertua, asturiar lurretan

Asteburuan Asturiasen izan da Udal Musika Eskolako helduen abesbatza. Katrin Iturralde zuzendariaren esanetara, Colombres herrian emanaldi berezia eskaini zuten, errepertorioa hiru ataletan banatuz. Txalo zaparrada jaso zuten ikusleen aldetik. Emanaldia egiteko aukera baliatu zuten asteburuko irteera egiteko.



Atea konpontzeko prestaketa-lanak. AIURRI

## Albaolatik Aralarrera, Urnietatik eta Andoaindik barrena

Ekainaren 9an Aralarko Santutegiko ate berriak eskualdean barrena igaroko dira

### Erredakzioa URNIETA

Ekainaren 9tik 15era, Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoriatik erromesaldia abiatuko da Aralarko San Migel Santutegira iristeko helburuarekin. Xedea ate berriak garraiatzea da, 2024ko urrian izandako eraso bandalikoaren ondoren txikituta baitaude. Denbora tarte honetan, ate berriak egin dituzte Ontziola-museoan, garai bateko teknikak erabiliz eta Sakanatik lortutako egurra baliatuz.

Aralarreko Santutegiko arduradunek ateak ekartzeko erromesaldia antolatzea erabaki dute. Hala, idiek tiratutako gurdi batean garraiatuko dituzte ateak. Pasaiaitik Aralarreko ibilbidea txistulari eta bertsolariekin batera osatu nahi dute, gainera. Ziurrenik, tokian tokiko eragileek parte hartuko dute modu batera edo bestera. Guztira, 86 kilometro baino gehiago izango

du ibilbideak, eta Gipuzkoako eta Nafarroako 21 herri zeharkatuko dituela aurikusi dute. Ekainaren 9an erromesaldia Hernanin, Urnietan, Andoainen eta Sorabillan geldituko da. Biharamunean, Villabona, Anoeta eta Tolosa udalerriak zeharkatuko dituzte. Erromesaldia ekainaren 15ean amaituko da, igandearekin, Santutegian egingo duten ongiatorriarekin. Egurdiko 12:00etan ate berriak jarri eta eukaristia egingo dute. Hori baino lehen, ateak gure udalerrietatik igaroko dira.

### Ekainak 9, astelehena.

#### Ordutegiak:

10:00 Astigarraga.  
10:50 Hernani.  
11:30 Urnieta. Ordu erdiko geldialdia egingo dute.  
13:30 Andoain.  
14:10 Sorabilla.  
15:00 Amasa-Villabona.

## ZORION AGURRAK

### www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

### diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

## ODOL-EMAILEAK

### HITZORDUA

**Ekainak 9, astelehena. Andoain**

Osasun etxea:

16:30- 20:15.

Deitu aurretik :

943 007 884.

Berrikuntza: Internet bidez ere hartu daiteke ordua gotatanta.eus webgunean sartuta.



Andoaingo ur-parkea. AIURRI

## Miranda pasealekuko ur-parkea, asteburuan, zabalik

Ekainaren 7an hasita, Miranda pasealekuko ur-parkea zabalik izango da goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara. 2023ko udaberrian zabaldu zuten ur-parkea Etxeberrieta auzoan eta honako hau da, beraz, hirugarren urtea. Bero handiko egunetarako aisialdi-gune egokia da, bereziki, haur eta familientzat.



**Erredakzioa** ANDOAIN

Antolatzaileek dagoeneko ordutegiak iragarri dituzte. On egin!

**Rukula:**

**12:00, Zumea plaza.**

Oian Agirretxe (bateria), Martxel Arkarazo (baxua), Jon Agiriano (gitarra) hirukotea, Beterri-Buruntzatik datorrena: "Rock dantzagarria egiten dugu".

**Gori Gori:**

**13:00, Plaza Morea.**

Errenteria eta Hendaiako taldea Ainara Gurrutxagak eta Ander Fernandezek osaturikoa. Musika elektronikoa, oinarrian.

**Marte Lasarte:**

**14:00, Goikoplaza.**

Skakeitaneko Pello Armendarizek (ahotsa) eta Borja Antonek (gitarra) sortu zuten. Haiekin batera, Alex Alonso (bateria) eta Lore Billelabeitia (baxua).

**Melenas DJ:**

**15:00, Goikoplaza.**

Nafarrak 2022ko Rock jaialdia zabaldu zuten. Aurten disko jartzaile lanetan ariko dira.

**EZEZEZ:**

**18:00, Nafarroa Plaza.**

Euskal Herriko ordezkariak Nafarroa plazako oholtza gainean. Beren errepertorioan, 70eko hamarkadako psikodeliatik grunge berritzaileainoko estiloak.

**Amor liquido:**

**19:05, Nafarroa Plaza.**

Madriildik datorren talentu berria. Letra frexko eta basatiekin. Art punk estiloa, Andoainen.

**Holiday Ghosts:**

**20:10, Nafarroa Plaza.**

London aldetik datorren pop-rock musika. Gitarra elektriko garbiak, kantu gehienetan.

**The Black Wizards:**

**21:50, Nafarroa Plaza.**

Portugal aldetik, zuzeneko bortitza, rocka eta soula uztartuz.

**Dummy:**

**23:05, Nafarroa Plaza.**

Kaliforniakoak musika hipnotikoa egiten abilak diela diote antolatzaileek.

**A Place To Bury Strangers**

**00:30, Nafarroa Plaza.**

New Yorkeko bandarik zaratsuen, horrela deskribatu dute antolatzaileek.



Goat Girl taldeko baterijolea, iaz, Nafarroa plazan. AIURRI

# Iristear da rockzaleen hitzordua

Andoaingo Rock Jaialdia 17. ediziora iritsiko da larunbat honetan. Musika-eskaintza komertzialetik harago badago zer ikusia eta zer gozatua. Urteotan guztiotan, bestelako proposamen interesgarrien bozgorailua bilakatu da Nafarroa plazako oholtza



Puro Relajo, 2022an. AIURRI

## San Juan jaietako programazioa laster aurkeztuko dute

San Juan jaietan zein musika talde ariko dira? Jende askoren ahotan dagoen galdera da. Ziurtzat jotzen den taldea Puro Relajo da. Andoaingo bidea ondoto ezagutzen dute, azken urteotako egitarauan errepikatu duen talde bakarra baita. Sekulako fenomeno da, urteak joan eta urteak etorri, jendetza erakartzea lortzen baitute. Ekainaren 25ean hurbilduko dira Andoainera, eta emanaldia iluntzeko 20:00tarako dago aurrikusia. Gainerako programazioa laster emango du aditzera Andoaingo Udalak.



Pizzak eta kroketak. AIURRI

## Pizzak jateko aukera, Andoaingo Rock jaialdian

Kioskoaren ondoan dagoen aterpean pizzak erosteko aukera izango da, larunbat honetan. Santakruzetako eskaintzaz, beraz, gozatu ahal izango da Nafarroa plazan.